# EGAk C1 2026

# Antolamendu arauak
# Règles d'organisation

**Ces règles pourront être modifiées en cours d'année si les besoins de l'organisation l'exigent.**

## 1) Sessions

Un examen de niveau C1 validant la maîtrise de la langue basque sera organisé sur le territoire du GIP OPLB en 2026; il pourra se dérouler en mode dématérialisé (sur ordinateur) au(x) centre(s) d'examen.

Deux sessions d'examen certifiant l'acquisition du niveau C1 seront ouvertes au public : au printemps et à l'automne 2026.

## 2) Public concerné : conditions

L'examen s'adresse aux personnes sachant bien parler et écrire la langue basque, soit qu'elles la maîtrisent comme première langue avec alphabétisation par la suite, soit qu'elles l'aient acquise à l'école. Il est organisé sur la base d'un appel à candidatures ouvert à toute personne[1] âgée d'au moins 17 ans au 31 décembre 2026, soit née avant le 1er janvier 2010, voulant obtenir une certification de niveau C1. À titre exceptionnel, les candidats nés en 2010 et qui suivent leur scolarité avec les élèves de la classe de 2009 (candidats ayant sauté une

**Honako arautegi hau urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek hala eskatzen badute.**

## 1) Deialdiak

C1 mailako Euskara Gaitasuna egiaztatzeko azterketak antolatuko dira 2026an Iparraldean; modu elektronikoan (ordenagailuz idatziz) iragaten ahalko da azterketa-gune(et)an.

C1 maila egiaztatzeko probak, deialdi irekiz, bi azterketa-alditan izanen dira: 2026ko udaberrian eta udazkenean.

## 2) Nori irekiak: baldintzak

Azterketa hau, bere baitatik edo ikastetxe batean landuz euskara ongi dakien, C1 mailako (EGAk C1) gaitasun-agiria eskuratu nahi duen edozein[1] pertsonari zuzendua zaio, deialdi irekiz, 2026ko abenduaren 31n berantenez 17 urte betetzen dituen unetik; hots 2010eko urtarrilaren 1.a aitzin sortua. Salbuespen bakarra: 2010ean sortu baina 2009koen ikasgelan diren azterketariak (ikasturte bat jauzi egin dutenak).

[1] Pour des raisons d'organisation et de moyens, on n'acceptera qu'un nombre limité de candidats, en tenant compte d'un des critères géographiques suivants : seuls seront acceptés les candidats nés en France, y vivant, y travaillant ou y étudiant.

[1] Antolaketa eta baliabide arrazoiak direla medio, azterketari kopuru mugatua onartuko da azterketara, baldintza geografikoa kontuan hartuz: frantziar Estatuan sortu, bizi, lan egin edo ikasten ari diren azterketariak baizik ez dira onartuko.

classe) pourront également se présenter à l'examen.

Pour se présenter à l'examen, il faudra s'acquitter d'une somme de 35 €, par session.

Le candidat devra présenter une pièce d'identité ainsi qu'une attestation d'inscription le jour de l'examen.

## 3) Dates et lieux d'examen

Les délais et le lieu du Certificat de compétence en basque de l'année en cours seront publiés au mois de février 2026 sur le site Internet de l'OPLB, ainsi que dans les médias.

Si un candidat avait besoin d'un horaire spécifique pour l'examen oral, il devrait le signaler dès son inscription, en délivrant les justificatifs nécessaires. Si cette nécessité d'horaire spécifique pour l'examen oral apparaissait ultérieurement, il devrait, en faire la demande au plus tard lors de l'examen écrit. Si cela n'était pas possible, il devrait demander l'autorisation de passer directement à l'oral de la seconde session de la même année.

## 4) Possibilités de présentation

Chaque candidat pourra se présenter à autant de sessions qu'il le voudra, mais il ne peut pas se présenter à deux niveaux de la même session.

## 5) Consultation de copie

Si un candidat qui n'a pas été reçu à l'examen souhaite consulter sa copie, il peut en faire la demande. Le Comité Scientifique fixera une date à cet effet, si les conditions de l'organisation le permettent.

Azterketan parte hartu ahal izateko 35 €-ko saria ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko.

Azterketa egunean nortasun agiri bat eta izen-emate agiria aurkeztu beharko ditu azterketariak.

## 3) Azterketen leku-egunak

2026ko otsailean, EEPko webgunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko Euskara Gaitasun Agirien epe eta kokaguneak.

Ahozko azterketarako ordutegi berezia behar balu azterketari batek, izena ematen duen unetik jakinarazi beharko luke, beharrezkoak diren ziurtagiriak emanez. Ahozko azterketarako ordutegi bereziaren beharra berantago jakinen balu, azterketa idatziaren egunean jakinarazi beharko luke berantenez. Ezin izanez gero, urte bereko bigarren ahozkora zuzenean joateko baimena eskatu beharko luke.

## 4) Aurkezteko aukerak

Azterketari bakoitza nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko da azterketa bakoitzera, baina deialdi berean ezingo du maila bat baino gehiagotara aurkeztu.

## 5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere kopia kontsultatu nahi izanez gero, eskaera egin dezake. Batzorde Zientifikoak data bat finkatuko du horretarako, antolaketa-baldintzek hori baimentzen badute.

## 6) Invalidation

Tout candidat pris en flagrant délit de fraude ou de tentative de fraude, ou utilisant des documents prohibés, risque l'exclusion de la salle d'examen et la nullité de l'examen.

La décision d'exclusion et de nullité revient aux membres du jury présents le jour de l'examen.

## 7) Détail du déroulement

Déroulement de l'examen écrit : l'examen se déroulera conformément au document **Règlement de l'examen EGAk C1 2026.**

Déroulement de l'examen oral : l'examen se déroulera conformément au document **Règlement de l'examen EGAk C1 2026.**

En ce qui concerne la composition et le rôle du jury :

- Tout candidat se présentant à l'épreuve orale devra prouver qu'il a acquis le niveau C1 en langue basque correspondant dans les compétences : expression orale en continu et interaction orale devant un jury composé de deux examinateurs.

- Un membre du jury (ou à tour de rôle, s'ils le souhaitent) assurera le déroulement technique de l'épreuve (inscription des noms et prénoms et des remarques, gestion du temps…), pendant que le second interrogera le candidat.

## 6) Baliogabetzea

Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiatzen den azterketaria, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izanen da eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

## 7) Azterketaren iragan molde zehatza

Azterketa idatziaren iragan moldea: **EGAk C1 Azterketa eredua 2026** dokumentuaren arabera eginen da.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **EGAk C1 Azterketa eredua 2026** dokumentuaren arabera eginen da.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu epaimahai baten aitzinean frogatu beharko du C1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragineko gaitasunak eskuratu dituela.

- Epaimahaikideetako batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketaren alde teknikoa segurtatuko du (izen-deiturak eta oharrak hartzea, minutuen neurketa…), besteak azterketaria galdekatuko duen bitartean.